

KOSTUEN EGITURA



**Oier Arraztio
Garazi Etxarte
Garazi Aizpurua
Harriet Urdampilleta**

Enpresa bat aurrera eramateak dakartzan kostu guztien definizioa da. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresak gai izan beharko du gastu horiei aurre egiteko.

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik. Bi negozio-eredu mota nagusi bereizten dira, beren kostu-egitura kontuan hartuta:

Batetik, **kostuak bultzatutako negozio-eredua**, kostuak minimizatzen bideratzen dira, horretarako aukera dagoen enpresaren sail guztietan. Lortu nahi dutena da kostu-egitura ahalik eta murriztuen mantentzea, prezio baxuetan oinarritutako politika komertzialak erabilia, prozesuak automatizatuta eta zerbitzuak masiboki azpi-kontratatuta. Adibide garbiena kostu txikiko airelineak dira.

Bestetik, **balioan oinarritutako negozio-ereduak**, enpresen interes handiena ez da kostuak minimizatzea, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea (beren produktuen edo zerbitzuen kalitatea zainduz, marka, etab.). Gainera, pertsonalizazio-maila handia eskaintzen dute. Luxuzko hotelak, adibidez, mota horren barruan egongo lirateke, bertan eskaintzen dituzten era eta zerbitzu eskusiboak direla eta.

Kostuen egiturek ezaugarriak batzuk izan ditzakete, eta honako hauexek dira: kostu finkoak, kostu aldakorak, eskalako ekonomiak, eta hedadura ekonomiak.

Kostu finkoak: Produkzio kantitatearekin zer ikusirik ez dutenak. Beti berdinak izango diren kostuak dira, soldata edota alokairuak hala nola.

Kostu aldakorak: Ekoiztutako produkzioaren araberakoak direnak dira. Adibidez, lehengaiak, energia etab.

Eskalako ekonomiak: Produzitutako unitateen kantitatea handitzean eta kostuen murrizketa lortzen denean ematen da. Adibidez, 2000 pilota ekoizten direnean, hauen kostua txikiagoa izango da 300 pilota ekoizten direnean baino.

Hedadura ekonomiak: Baliabide berdinak erabili daitezke, produktu bat baino gehiago egiteko.

Low-cost kostuak: Prezio merkeagoak jarri, bezero gehiago izateko. Hau adibidez, hegazkin konpainia batzuek darabilte.

Gure enpresan, produktuak material birziklatuz eginak izango direnez eta beti produkzio berdina izatea zaila izango denez, guretzat egokiena kostu aldakorrak baliatzea izango da non kostuak ekoiztutako produkzioaren arabera finkatzen dira. Beraz, era honetan ez dugu galerarik izango, izan ere, guk erabakiko dugu momentu oro zein den momentu bakoitzean kostu komenigarria eta zein izango den guretzat irabaziak emango dituen. Adibidez, kostu finkoak erabiliko bagenitu eta ekoiztutako kantitateak gora egingo balu nabarmen, irabazi asko izango genituzke baina alderantziz, gure ekoizpenak behera egingo balu eta prezioak ezingo bagenitu igo, galerak izango genituzke. Horregatik, arazo hori saihesteko erabiliko ditugu kostu aldakorrak, aldaketak egin ahal izateko.

Horrez gain, Low-cost kostuak ere baliagarriak aurki ditzazkegu kasu konkreturen batean. Esate baterako, gure enpresa bide txar batetik badoa eta bezeroak ez badaude gurekin konprometituta, prezioen beherakada horrek bezeroak erakarri ditzake eta era horretan, guri erosten jarraitzeko bultzatzen ditugu. Hori lortuko bagenu, prezioak berriz igo beharko genituzke gutxika enpresaren egonkortasun ekonomikoa lortzeko.